

NAGUSIEN ETXE-EGOITZ BATEKO INTERBENTZIOAK

Gipuzkoako Foru Aldundiko Osasun eta Gizarte Ongizate Sailekoa den Eibarko Jubilatuta eta Pentsionisten Egoitza eta Etxean, bertan dauden zaharrei atentzio osoago bat eskeini asmoz, esfortzu haundi bat burutzen ari gara. Aldiberean, beharrezkotzat jotzen dugu, egiten ari garen lanaren berri ematea.

Gizarte departamentua, 1.989ko Urtarrila arte, gizarte lanean diplomatuak zirengatik osaturik zegoen. bata egoitzaren bizilagunen atentzioaz arduratzen zelarik eta bestea bazkideaz. Aipatutako egunetik, gaur egun arte, bi figura-profesional berri ditugu: suspertzaile soziokultural bat eta psikologo bat.

Gure lanaren helburu garrantzitsuena giro egokia sortzea da. Honekin zaharren integrazioa eta haien bizia normala izan dadin bere ingurunean. Beste aldetik norberak egin nahi dituen gauzak burutzeko baldintza egokiak jarri nahi ditugu.

Horretarako sozial sailak arlo desberdinetan kokatzen ditu bere eginbeharrak. Esate baterako: parte hartzea bultzatzea, bakoitzarenganako asistentzia, talde autogestioa, prebentzioa, kultura suspertzea, hornikuntzaren bultzaketa, atentzio psikologikoa,.... Zaharren partehartzearen alde gaude eta horrexegatik, ez ditugu haien arazoak argitzen, arazoak konpontzeko bideak lantzen baizik. Nolabait esateko, gure lana hezgarria izan dadila nahi dugu.

Egoitzan Egoiliarren Ongizate psikosozial eta fisikoa lortzearen garatzen diren iharduera eta programei dagokienez esan beharra dago osasuna bere OSOTASU-NEAN hartzen dela, eta beraz, osasuna osatzen duten arlo guztiak, bai fisiko zein psikiko nahiz sozial arloak, barne hartu nahi direla programetan. Gizarte Departamentuak Egoiliarrei ematen dien eskaintzaren ikuspegi orokorra edukitzearen honako bi multzo hauetan banatuko ditugu iharduerak eta interbentzio programak:

-) Prozesuzko iharduerak eta programak
- A) Iharduera zehatzak

Lehenengo multzoko iharduerak lan prozesu jarraia eskatzen dutenak izango lirateke, planifikazio, programazio, ikerkun-

tza, ebaluaketa eta abarren bitartez, bigarren taldekoak zehatzagoak dira dituzten ezaugarriengatik eta data jakin batean gertatzen direlako (gabonak, ihauteriak,...)

Bi talde nagusi hauetan beste talde hauek daude:

Taldekako programak

Aplikazio orokorreko programak (adibidez, familiei zuzendurikoak, Egoitza osoari zuzendurikoak,...)

Aipatu beharreko beste puntu garrantzitsu bat aplikazio eremua da, Egoitzari espreski zuzendua izan daitekeelako, edo Egoitzari eta Etxeari, biei zuzendurikoa.

(1) Artikulo honetan kontutan hartu nahi dugu gurekin lana egiten duten begiraleek. Haien lana erabat beharrezkoa bait da.

PROZESUZKO IHARDUERAK ETA PROGRAMAK

Taldekako Prozesuzko Iharduerak eta Programak

Lan mota honek garrantzi berezia du aldi berean prozesuzko eta taldekako programa delako, ezaugarri hau oso komenigarria bait da Egoitza-Erakunde batean dauden adineko pertsonentzako. Hemen intzidentzia arlo desberdinak zehaztuko ditugu:

A) *Terapia okupazionala*

1 TERAPIA. Terapia Okupazional mota hau gauza diren Egoiliarrentzako da, eskulanaren bitartez beso, esku eta abarren ahalmen eta trebetasun psikomotorea, koordinazio ikus-motorea, etab. garatu eta mantentzea lortu nahi delarik.

Lan hauek erabilgarritasun zehatza izan dezaten lortu nahi da, bai Erakusketen bidez zein lortutako produktuak objektu apaingarriztat erabiliz, adibidez, Familia Egunerako dekorazioa edo antzerakoak burutz.

0 TERAPIA. Mota hau aurrekoaren oso antzekoa da, oraingo honetan galtzorratz eta kakorratz lanak lantzen direlarik. Egiten dituzten lanak erakustera jarri ohi dituzte Egoitzan aukera desberdinetan.

1 TERAPIA. 3 terapian 3 talde desberdin daude bakoitzaren ahalmenaren arabera saikatuak, elbarritasun aurreratuak jota dauden pertsonentzat da.

Beronen zeregina errehabilitazioa lortu eta geratzen zaizkien funtzioak mantentzea izango litzateke.

b) *Ezagutzazko funtzioak. Orientabidea Errealitatean*

Orientabidea Errealitatean deritzan Programa ezagutzazko funtzioak mantendu eta errehabilitatzera zuzendurik dago, aurreneko seihilekoan esperimientalki izan duen garapenean lortu diren emaitzak aldekoak izan dira argi eta garbi. Programa hau ezagutza narriatua eta ipar-galtzea jasaten dutenei zuzendua da.

Hiru talde egin daitezke ezagutzazko ahalmenaren arabera, ikastaroaren hasieran eta amaieran neurketa egingo zaielarik, hona hemen: Talde aurreratua. Talde standarda eta Oinarrizko taldea.

C) *Osasun Fisikoa. Gimnasia. Osasun Proiektuak*

Osasun maila honi dagokionez, hau da, osasun fisikoari, esan beharra dago Mantenimendu Gimnasiako talde bat dagoela, eta elikadura, ariketa fisikoa, lokomozio-aparatua eta abarri buruzko prebentzio eta dibulgazioko osasun proiektuak garatzen dituztela.

D) *Interakzio arloa eta arlo soziala. Kultur Aretoa. Gizarte Laguntzarako Proiektua*

Alderdi interakzionala eta soziala Kultur Aretoan eta Gizarte Laguntzarako Proiektuan lantzen dira.

Kultur Aretoa: gizarte maila, kultura eta komunikabidea sustatzen dituen topagunea da, entzumena bezalako oinarrizko ahalmenak lantzetik hasi eta norbanakoak talderatze handiagoa izan dezan lortzera birtartekoak sustatzen ditu. Bi talde daude hemen, bata euskalduna eta bestea gaztelarduna.

Gizarte Laguntzarako Proiektua: Gizarte Harremanak sustatzea du helburu, haurren kopurua handituz eta kalitatea hobetuz.

Honako hau interbentzio maila desberdin eta elkarrekin zerikusirik duten problematika desberdinei zuzenduriko proiektu globala dugu: esaterako, baliabide sozial txikiko jendeari (lagunik gabeko Egoiliarrak, senderik gabekoak...) sozialki trakets samarra den jendeari, parte hartzearen zaletasun gutxi dutenei...

Orain arte bi talde eratu dira parte hartzea, elkarrekiko harremanak izatea eta antzekoak bultzatu asmotan. Proiektu hau datorren ikasturtean garatuko da.

Interbentzio Orokorrak

A) *Familia harremanak. Familia Eguna. Sakonduz proiektua*

Familia harremanei dagokienez, eguneroko harremanaz aparte Familia Eguna ere ospatzen dugu: egun honetan Egoitzak ateak irekitzen ditu senide eta lagunei eguna Zentroan bertako langilegoarekin eta Egoiliarrekin batera pasa dezaten gonbitea lutzatuz. Aurten honen osagarri gisa Sakonduz Proiektua ari gara gauzatzen, familia harreman hauek sakondu asmoz, horretarako galdera-sorta bat bidali zitzaion fami-

liei eta hau oinarri hartuz senideekiko iharduera eta harreman berriak diseinatu eta burutuko dira.

B) Astialdia. Ludoteka

Astaldi arloan ludoteka bat prestatu dugu, joku eta jolaserako leku gisa martxan hasi delarik, bai beste talde batzutan dauden edo premia bereziak dituzten Egoiliarrentzako programetan erabiltzeko zein eguneko zenbait ordutan nahi duenak erabiltzeko.

IHARDUERA ZEHATZAK

Iharduera zehatzen atalean beste zenbait interbentzio arlo desberdin daitezke, esaterako:

1. Kultur arloa

Kultur arloan hitzaldiak, bideoak eta ikastaro laburrak antolatzen dira, besteak beste: lorazaintza, P.F.E.Z., sukaldaritza, lehen-mailako asistentzia eta abarri buruzkoak.

2. Atsedeen iharduerak eta astialdikoak

Hemen aurki ditzakegunen artean hauexek aipatuko ditugu, ibilaldiak, bingoa, dantzaldiak, bi-

deoaldiak, bai eta Eibarko Astelena frontoira joateko dohaineko paseak ere.

3. Jai eta ospakizunak

Jai eta ospakizun desberdinak egiten diren zenbait data berezi daude urtean zehar, esaterako, Gabonak, ihauteriak. Aita eta Amaren Egunak, Omenaldi Astea, etab..., egun hauetarako makina bat iharduera antolatzen delarik, besteak beste, Gabonetako zozketak, bideoak, hitzaldiak etab... halaber, ihauterietarako konpartsa bat eta Arraten Omenaldi Astea dela eta, bilkura bat antolatu ohi delarik.

Ikus daitekeenez iharduera eta programa guzti hauek elkarrekiko lotura estua dute, guztien artean iharduera multzo koherentea osatuz. Hala eta guztiz ere, oraindik ere behar bezala garatu gabeko arloak badaudela konsziente gara, urterako guzti hau borobildu egingo da. Aurten talde terapeutiko bat eta erlajazio beste talde bat antolatu dugu, txerezko funtzioekiko programen bitartez. Eta gizarte, osasun eta abarri buruzko laguntzarako proiektuak garatuko dira, orokorrean lan jarraipide be-rean jarraituz.

Aipatu ditugun iharduera guzti hauek, hobeto ulertzeko direlakoan ondoko taulan laburbidu ditugu:

			Izen	Aste Saio	Ord. Saio	Noiz	Non	Eremua
PROZESUZKO IHARDUERAK	TALDERA	Terapia Okupazionalak	1T	2	1,30	Kurt.	T	Eg.
			2T	3	2	Kurt.	T	Eg./Et.
			3T	2	1	Kurt.	T	Eg.
		Ezagutzazko Terap.	O.E.A.	3	1	Kurt.	L	Eg.
			O.E.S.	3	1	Kurt.	L	Eg.
			O.E.O.	3	45'	Kurt.	L	Eg.
		Osasuna	Programa	*	-	Uztaila	@	Eg./Et.
			Gimnasia	1	1	Kurt.	L	Eg./Et.
		Sozialak	K.A.E.	2	1	Kurt.	L	Eg.
			K.A.G.	2	1	Kurt.	L	Eg.
			GLT1.2	8	1	Uztaila	@	Eg.
			GLT	2	1	Kurt.	@	Eg.

			Izen	Aste Saio	Ord. Saio	Noiz	Non	Eremua
	OROKO- RRAK	Familiak	Eguna	-	-	I raila	-	Eg.
			Sakonduz	•		-	-	Eg.
		Atsedean Aldia	Ludoteka	•		Kurt.	L	Eg./Et.
IHARDU- ERAK ZEHATZAK		Kultur	Ikastaroa	*	-	Kurt.	@	Eg./Et.
			Hitzaldi	•	-	Kurt.	K	Eg./Et.
			Ibilaldi	•	-	-	-	Eg./Et.
			Bingo	1	2	Kurt.	@	Eg./Et.
		Atsedean eta Astia	Dantzaldi	2	3	Kurt.	K	Eg./Et.
			Bideo	1	2	Kurt.	2.pis	Eg./Et.
			Frontoia	1	10'	Kurt.	2.pis	Eg./Et.
		Jaiak eta Ospakizunak	Ihauteriak	-	-	-	-	Eg./Et.
			Aita eta Amaren Eguna	-	-	Martxoa	-	Eg.
			Omenaldi Astea	-	-	Ekaina	-	Eg./Et.
			Gabonak	-	-	Abend-Urtarrila	-	Eg./Et.

1T = 1 Terapia. 2T = 2 Terapia. 3T = 3 Terapia (3 talde). OE-A; OE-S; Oe-0 = Orientabide Errealitatean. K.A. = Kultur Aretoa. GLT = Gizarte Laguntzarako Taldeak. (') = Erabaki gabea, zehaztu gabea. Kurt. = Ikasturteko iharduera. T = Terapia gela. L = Ludoteka. K = Kapera. Eg. = Egoitza. Et. = Etxea

ETA HEMENDIK AURRERA, ZER!

Orain arte aipatu dena estraineko urratsak bezala hartu behar dira, gure lana zabalagoa dela kontutan izanik. Nagusien normalizazioa eta bizitza kalitatea gehitzea ditugun helburu nagusi bezala.

Pertsonen errespeto eta garapen eza gutzeratik abiatuz bi eskubi nagusiak gureganatzen ditugu: alde batetik desberdintasunaren eskubidea eta bestetik aisiaren eskubidea eta honek ez du suposatzen deus egitea ez gizartetik aldegitia.

Horretarako beharrezkoa da gizarteko pertsona, talde, gizarte langile, erakunde

eta komunitateekin hartuematetan ipintzea, lortu nahi diren helburuak egoitzeko ingurunean gaintzen bait dute, era berean zentroa komunitatearen baliabide izan daiteke guztiontzako.

Nagusiori "gizon" kalitatea eta honekin doazen eskubide orok bereganatzen badizkiogu, haien arazo pertsonalak eta sozialak konponduko dira, era honetan nagusiak baliogarri, beharrezko, independente eta baloratuak izango dira; bide batez, pertsonak sentituko dira.

Ssabel Alonso Miefgo
Begoña Gutierrez Eizagirre
Francisco Javier Leturia Arrazola
Jose Javier Yanguas Lezaun